

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

**UDALTZAINGOAK GUNE PRIBATUETAN EGITEN DUEN LANARI BURUZKO
KONTROL MOZIOA**

Jabier Vitoria Romak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko urtarrilaren 15ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Jakin dugunez, azaroaren 24az geroztik, langile publikoak diren udaltzainak oinezko patruilak egiten ari dira Garbera merkataritza gune pribatu barruan.

Urtarrileko batzordeetan, gaiaren inguruan Udal Gobernua interpelatu dugunean, ardura duen ordezkariak adierazi digu, zerbitzu hau “espazio erdipublikoa” izanik, hori egiteko eskumena daukatela eta bisitari kopuru handia delako komeni dela.

Merkataritza guneak erabilera publikoko espazio pribatuak dira, eta erabilera hori mugatua dute (ordutegia...). “Irabazi asmoa” izanik, baliabide handiak izaten dituzte, merkataritza talde indartsuetakoak baitira eta negozioaren kudeaketa pribatua da (besteak beste, instalazioen segurtasuna).

Merkataritza gune hau pribatua da eta bere seguridade plana dauka. Horretarako, prebentzio eta zaintza zerbitzu propioa kontratatuta dauka (zaindari pribatuak, bideokamerak...).

Garbi utzi behar dugu, erabilera publikoa izanda ere, espazio hauek jabetza eta kudeaketa pribatuak dituztela.

Donostian udaltzainen prebentzio lanaren beharra handia da. Askotan entzun dugu ez dela ailegatzeko behar guzti horiei erantzutera, baliabideak eskasak direlako. Eta orain jakin dugu baliabide hauek erabiltzen direla lan bera gune pribatu hauetan egiteko.

Azpimarratu behar da, era berean, lan prebentiboaz ari garela eta ez delituez edo iskanbilei aurre egiteaz, izan espazio publikoa edo espazio pribatua.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udaltzarak hertsiki esaktzen dio Udal Gobernuari ez dezala giza baliabide publikorik erabili, prebentzio zerbitzua egiteko, merkataritza gune pribatuen barruan.

Donostian, 2024ko urtarrilaren 19an



Sin.: Jabier Vitoria Roma
EH Bildu udal taldeko zinegotzia